

LASKORAIN KE - Barne araudia

1. HELBURUA	2
2. BALIOAK	2
3. EGITURA	3
3.1. KOMUNIKAZIO-BIDEAK	3
3.2. KAPITAINAK	3
4. STAFF TEKNIKOKO KIDEAK	4
4.1. ESKUBIDEAK	4
4.2. BETEBEHARRAK	4
5. JOKALARIAK	5
5.1. ESKUBIDEAK	5
5.2. BETEBEHARRAK	5
5.3. KAPITAINEN BETEBEHARRAK	6
6. ARAU-HAUSTEAK	7
6.1. ARINAK	7
6.2. LARRIAK	7
6.3. OSO LARRIAK	7
7. ZIGORRAK	8
7.1. ARINAK	8
7.2. LARRIAK	8
7.3. OSO LARRIAK	8

1. HELBURUA

Taldekide, tekniko eta orokorrean kirol elkarteko kideen arteko bizikidetza eta antolakuntza oinarritzko arau batzuk ezartzea. Bi talde bereizi daitezke:

- a. Kirol elkartean inskribatutako lehen taldeko kideak, lotura amaitzen den arte.
- b. Klubeko staff teknikoa.

Arau hauen ezarpenak ahalbidetuko du larritasunaren arabera kirol elkarteko arduradun ezberdinek beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea.

2. BALIOAK

Taldearen nortasuna osatzen duten balioak:

- **Euskararen erabilera**
- **Batasuna eta taldeko lana**
 - **Osagarritasuna:** Taldekide bakoitzak esparru jakin bat menderatzen du, taldeko beste jokalaria osatuz. Batak besteari lagundu.
 - **Koordinazioa:** Taldekide guztiek batera modu koordinatuan lan egiteak osatzen du taldea.
 - **Komunikazioa:** Taldekide guztien arteko komunikazioa, guztien banakako lanak koordinatuz.
 - **Konfiantza, Segurtasuna:** Taldekideek egiten duten lana baloratu eta lan horrengan konfiantza izan.
 - **Konprometzua:** Bakoitzaren onena taldearen mesedetan erabili, taldearen interesak banakoaren gainetik jarritz.
- **Diziplina**
 - **Errespetua:** Taldekide, entrenatzaile, arerio, epaile, langile zein ikusleak errespetatu.
 - **Enpatia:** Besteen tokian jarri eta entzuten jakitea.
 - **Umiltasuna:** Edonork gutaz ikasi dezakeen bezala guk besteengandik ikas ditzakegu gauzak, eta egunez-egun hobetu.
 - **Proaktibitatea:** Gure akats zein ekintza onak naturaltasunez onartu, zuzendu eta ikasi.
- **Ilusioa**
 - **Ahalegina:** Bakarkako zein taldearen helburuak lortzeko beharrezko lana egitea.
 - **Iraunkortasuna:** Modu konstante batean ahalegintzea.
 - **Gainditzea:** Eguketik egunera gure ahalegina handiagoa izatea, eta gure helburuak geroz eta altuagoak izatea eguketik egunera hobeak izan eta etengabe hobetzen eta hazten jarraitzeko (anbizioa).

3. EGITURA

Klubaren eguneroko jardunerako hartzen diren erabakiak talde bakoitzeko staff teknikoko kide eskudunek hartuko dituzte normalean. Garrantzi handiagoko erabakiak edo ekipamendu, instalazio, ondasun eta/edo irudiaren kudeaketan eragina dutenak klubeko zuzendaritzarekin batera hartuko dira.

Talde bakoitzak azpitalde hauek izango ditu:

- a. Staff teknikoa. Kide batek edo gehiagok osatuko dute, kategoriaren arabera.
- b. Jokalariak. Taldeko ohiko jokalaria guztiak, Kapitainen taldea barne.

3.1. KOMUNIKAZIO-BIDEAK

Behar diren komunikazio bideak ezarriko dira, taldearen jarraipen egokia egiteko eta staff-aren eta jokalarien arteko noranzko biko komunikazio ona izateko. Staff tekniko bakoitzak zehaztuko du ibilgu horien maiztasuna eta izaera, talde bakoitzaren ezaugarrien arabera, eta gutxienez hilean behin erabiliko dela bermatuko du.

Horrez gain, jokalarien ordezkari gisa, plantilla bakoitzak kapitain-talde bat izango du.

3.2. KAPITAINAK

Kapitain-taldea hiru jokalarik osatuko dute, lehen kapitainetik hirugarrenera ordenatuta. Lehen kapitainak ordezkatzeko du ofizialki taldea behar diren ekitaldietan. Ezinezkoa denean, ordenatuta dagoen hurrengo kapitainaren erantzukizuna izango da.

Kapitainak taldearen balioen arabera hautatuko dira; beraz, ez da ausazkoa izango. Jokalari bat kapitain gisa hautatzeko, gutxienez urtebeteko antzintasuna izan beharko du taldean, eta aipatutako balioekin identifikagarria izan. Beteranoa izatea puntu baloragarria izango da, baina kapitainen aukeraketan ez da garrantzitsuena izango.

Kapitain orok zehatz-mehatz bete beharko ditu balio horiek eta erregelamendu honetako 5.3 atalean jasotako betebeharrak. Beraz, baldintza horiek behin eta berriz betetzen ez badira, kapitain-taldeko kideak berrikusi egingo dira.

4. STAFF TEKNIKOKO KIDEAK

4.1. ESKUBIDEAK

- a. Klubean dagozkion eginkizunak betetzea, dagokion lan taldearen barruan.
- b. Klubeko kideekiko errespetuz eta zuzentasunez tratatzea.
- c. Klubaren instalazio eta baliabideak haren helburuak betetzeko erabili ahal izatea.
- d. Kiroltarako ideiak/jarduerak proposatzea.
- e. Klubaren lan metodologia garatzen aktiboki lan egitea.
- f. Helburuak betetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea.

4.2. BETEBEHARRAK

- a. Entrenamenduen eta kirol jardueren urteko plangintza prestatzea.
- b. Taldearen behar materialak eta/edo kirol-beharrak aztertzea eta identifikatzea.
- c. Klubeko lan taldearen lan bileretara joatea.
- d. Bere eginkizunetan jarrera duina eta errespetuzkoa izatea alderdi tekniko eta pertsonalean.
- e. Esleitutako eginkizunak behar bezala eta zehatz betetzea.
- f. Bere ardura peko kirolarien gaineko agintaritzari eustea uneoro.
- g. Barne erregelamenduan ezarritako arauak bete eta betearaztea.
- h. Kirolarien kontsultei erantzutea, haien ahalegina bultzatzea eta bizikidetzatza eta balio moral eta ohorezko guztien garapena bultzatzea.
- i. Kirol materiala eta espazioak ahalik eta hobekien mantentzea.
- j. Egin beharreko lanerako egokia den kirol ekipamendua eramatea beti.

5. JOKALARIAK

5.1. ESKUBIDEAK

- a. Izaera garatzea gauzatuko duen formazio bat jasotzea. Norbanakoaren autonomia, besteekin erlazionatzeko gaitasuna eta afektibitatearen garapena.
- b. Gizartean bizitzeko beharrezko hiritartasun eta errespetu arauak jasotzea.
- c. Jokalari guztiek eskubidea dute errespetuz tratatuak izan eta kirol aktibitateak aldarte oneko ingurune batean, segurtasunez, eta higie egokiaz garatu ahal izateko.
- d. Taldeko beste jokalaria guztiak bezala tratatua izateko eskubidea, taldekide guztien arteko berdintasuna sustatuz.
- e. Ezagutza tekniko zein taktikoak garatu ahal izateko formakuntza jasotzea.
- f. Kirol elkarteko kide guztiek errespetatu eta bermatu behar dituzte eskubide hauek.

5.2. BETEBEHARRAK

- a. Lehen taldeko barne araudia betetzea, taldearekin burutako edozein aktibitateetan. Araudi honekin erlazionaturik kirol elkarteko arduradunek hartutako erabakiak errespetatzea.
- b. Kirol elkarteko kideak errespetuz tratatzea: taldekide, teknikoak, zuzendaritza... modu berean, errespetuz tratatu beharko dira aktibitateak gauzatzen diren instalazioetako langileak.
- c. Kirol aktibitate ezberdinak lehen taldearen konpetizio zein formakuntza helburuak kaltetu gabe gauzatzeko konpromezua, ikasketa prozesuan teknikoei gomendioei kasu eginez.
- d. Modu aktiboan klubeko beste kideekin batera parte hartzea, bizikidetzan on bat ahalbidetuz eta guztien iritzia errespetatuz.
- e. Aurretik adostutako aktibitate ezberdinetara agertzea, beharrezko arropa eta materialak eramanez.
- f. Bidaia lehen taldeko kide guztiekin batera egitea, ezinezkoa den kasuetan izan ezik edo/eta espreski horretarako staff teknikoaren baimena izanik.
- g. Hutsegiteak justifikatzea, staff teknikoari abisatuz aldez aurretik nahikoa denborarekin, justifikatutako kasuetan izan ezik. Honakoak kontsideratzen dira justifikatuak: gaixotasuna, familia arrazoiak, ikasketak. Azken hauetan, dena den, aldez aurretik abisatu beharko da.
- h. Arazo fisikoak dituzten jokalariek ere entrenamentuetara etorri beharko dute, eta beste motatako lan batzuk egingo dituzte, egoera bakoitzaren arabera egokitutakoak. Betebehar honetatik kanpo geratuko dira, arazo fisiko larriak dituzten jokalaria edo aurreko puntuan aipatutako hutsegite justifikatuak, betiere aldez aurretik abisatuz.

i. Puntualtasunez iristea bai entrenamentuetara bai beste edozein deialdira. Gainera, jokalaria bakoitzak puntualtasunez prest egon beharko du bai partidu zein entrenamentuetan beste jokalariekin batera kantzara sartzeko. Prestatzeko denbora gehiago behar duen edonork ofizialki deitutako ordua baina lehenago etorri beharko du horretarako (arropak, galtzerdiak, bendajea...).

j. Erabilitako edozein kirol-tresna zaintzea, modu egokian erabiliz eta instalazioak zainduz.

k. Kondizio onetan bueltatzea kirol elkarteak utzitako edozein tresna edo arropa, bakoitzaren ardura izango delarik berri batekin ordezkatzeko erabilera okerragatik hondatutakoa, edo ekonomikoki konpentsatzea ezinezkoa den kasuetan.

l. Bizikidetzak arauak bete eta betearaztea.

m. Taldeko balioak betetzea.

5.3. KAPITAINEN BETEBEHARRAK

Edozein jokalariren eginbeharretan eredugarria izateaz gain, taldeko kapitaina izan nahi duen jokariak:

- a. Taldearen balioak bete, transmititu eta betetzen direla bermatzea.
- b. Taldea kolektiboki zein taldekide bakoitza indibidualki ordezkatzeko.
- c. Talde teknikoaren luzapen bat izatea. Dedikazioa eta ahalegina etengabe erakustea.
- d. Kapitaintza pribilegio gisa ez hartzea, erantzukizun gisa baizik.
- e. Taldea jartzen du guztiaren gainetik, eta gainerako kideen iritzia bere gain hartzen ditu, interes komunagatik berea ez bada ere.
- f. Kide guztien berdintasuna bermatzea. Estatua ahaleginarekin eta lanarekin irabazten dela frogatzea.
- g. Taldearen komunikazioa eta batasuna sustatzea, taldearen barruan azpitaldeak sortzearen aurka lan egitea.
- h. Laguntzan proaktiboa izatea. Berriak eta laguntza behar duten guztiak integratzen laguntzea, laguntza eskatu arte itxaron gabe.

6. ARAU-HAUSTEAK

6.1. ARINAK

- a. Justifikatu gabeko atzerapenak.
- b. Justifikatu gabeko hutsegiteak, behin eta berriz gertatzen ez den kasuetan.
- c. Kirol elkarteko edozein kide iraindu edo modu arinean fisikoki erasotzea.
- d. Taldekideen kirolean aritzeko eskubidea urratzea, edo/eta aktibitate ezberdinetan zein pertsona ezberdinekin aritzerakoan (kirolari, entrenatzaile, ikusle...) izan ditzakeen jarrera txar edo errespeturik gabekoa, arina den kasuetan.
- e. Larriak ez diren diziplinarik gabeko ekintzak edo/eta irainak.
- f. Kirol elkartearen ohiko funtzionamendua arinki eragiten duen edozein ekintza.
- g. Staff teknikoaren gomendio edo argibideak koszienteki ez jarraitzea.

6.2. LARRIAK

- a. Arau-hauste arinen errepikapena.
- b. Arau-hauste arinengatik ezarritako zigorrak ez betetzea.
- c. Justifikaziorik gabe, parte hartzen ari den aktibitate batetik alde egitea.
- d. Kirolarien, teknikoen edo zuzendaritzaren arduretan parte-hartzea baimenik gabe.
- e. Larriak diren diziplinarik gabeko ekintzak edo/eta irainak kirol elkarteko kideei zein kide ez diren beste pertsonaei egindakoak elkartearen irudia hondatzen dutenean.
- e. Eraso fisiko larriak (taldekideak, beste klubetako jokalaria, epaileak, ikusleak...)
- f. Kirol elkarateak hartutako erabakiak ez errespetatzea.

6.3. OSO LARRIAK

- a. Kirol elkaratea edo/eta osatzen duten pertsonak kaltetzen dituen ekintza, irain edo edozein manifestazio publiko.
- b. Kirol elkaratea nahita kaltetzeko burututako edozein ekintza.
- c. Eraso fisiko oso larriak.
- d. Liskarretan parte hartu edo hauek probokatzea, edo jarrera oldarkor zein bortitzak bultzatzea.

7. ZIGORRAK

Staff teknikoak hartuko ditu arau-hauste arinen inguruko erabakiak, zein kirol elkartearen irudia eragiten ez duten falta larrien ingurukoak. Beste falta larriak zein oso larrien inguruko erabakiak zuzendaritza taldearekin batera hartuko dira. Larritasunaren arabera, honako zigorrak ezarriko dira:

7.1. ARINAK

- a. Entrenatzailearen edo staff teknikoko kide baten ohartarazte publiko edo pribatua.
- b. Entrenamentutik kaleratzea.

7.2. LARRIAK

- a. Behin eta berriz justifikatu gabeko hutsegiteen kasuan, ohartaraztea lehenengo aldia denean.
- b. Entrenamentu edo/eta beste kirol aktibitateetan parte ez hartzea 15 egun arteko epean.
- c. Eragindako kalteen ordainketa.

7.3. OSO LARRIAK

- a. Eragindako kalteen ordainketa.
- b. Entrenamentu edo/eta beste kirol aktibitateetan parte ez hartzea 90 egun arteko epean. Posible izango da kirol aktibitatean epe hori baina lehenago berronartzea aurretik jokalaria hala eskatuta eta jarrera aldaketa bat egon dela nabaria baldin bada.
- c. Kirol elkartetik kaleratzea.